


Nº .2. ZB // JULIO 2019 UZTAILA

BULETINA EL BOLETÍN

LAN HARREMAN ETA GIZARTE LANGINTZA
FAKULTATEA/FACULTAD DE RELACIONES LABORALES Y
TRABAJO SOCIAL



eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

LAN HARREMAN
ETA GIZARTE LANGINTZA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE RELACIONES LABORALES
Y TRABAJO SOCIAL



AURKIBIDEA

02 Dekanoaren agurra

Albisteak

- 03 Gizarte Langintzako graduako graduazio ekitaldia, 2015-19 promozioa
- 04 Gizarte Langintzako graduako irakasle Miren Ortubay lankidearen agurra
- 05 Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultateko ekitaldiak, jardunaldiak eta mintegiak
- 08 Emakume izen baten bila
- 09 Lan harremanak aldizkariko aldaketak
- 10 To share *Aberastasunaren banaketa bidezko baten alde* behatokia abian da Fakultatean
- 13 Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Graduak administrazio orokorreko teknikariaren plazak eskuratzeko aukera emango du
- 14 Zambra elkartearekin eginiko lankidetzaren hitzarmenaren Jarraipen Batzordearen eraketa eta akordioak

Elkarriketak

- 15 Linn-Marie Pedersen: Norvegiako doktoregaiak ikerketa egonaldia egin du Fakultatean
- 17 Elisa Ferraz: Fakultateko ikasle honek Bizia Lab campuseko programaren jardunaldian parte hartu du
- 19 Garikoitz Otazua: Fakultateko kalitatea bermatzeko barne sistemaren egiaztapena

DEKANOAREN AGURRA

Informazio aldizkari berri honi esker, gure fakultatean egiten ditugun eta gertatzen diren gauza garrantzitsu batzuen ezagutza zabaltzen lagundu nahi dugu, besteak beste: diplomak banatzea, prestakuntza jardunaldiak eta ikastaroak, gure tituluetakoa hobekuntzak eta kudeaketaren arloak arautzen dituen kalitatea bermatzeko barne sistema. Horrez gainera, gure ikastegiarekin lotutako hainbat pertsonaren iritziak eta bizipenak ere helarazi nahi dizkizuegu. Ikusten dugun moduan, jarduera askok ematen dute edukia, gure gizarteari prestakuntzatik eta ezagutza eskualdatzetik zerbitzatzeko asmoz, eta hori guztioi zor zaigu. Informazio aldizkari honekin kolaboratzen jarrai dezazun animatu nahi zaitut, hobetzeko iradokizunak, eta hurrengo argitalpenetarako edukien ideiak bidaliz. Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiet Javier Cerrato dekanordeari eta Amaia Inza dekanordeari eginiko ahaleginagatik eta lan onagatik informazio aldizkari hau egitea koordinatzeko orduan.

Angel Elias Ortega

GIZARTE LANGINTZAKO GRADUKO GRADUAZIO EKITALDIA, 2015-19 PROMOZIOA

Gizarte Langintzako Graduko 2015-19 promozioako graduazio ekitaldia 2019ko ekainaren 27an egin zen, Arabako Campuseko Letren Fakultateko Areto Nagusian.

UPV/EHUko Euskara eta Etengabeko Prestakuntzako errektoreorde Jon Zaratek, gure fakultateko dekanok Angel Eliasek, Arabako Gizarte Langileen Elkargo Ofizialeko presidente Gotzon Villañok eta promozioaren amabitxi Miren Ariñok eta aitabitxi Eguzki Urteagak egin zieten harrera ikasleei eta gurasoei.

Ekitaldian, 80 ikasle inguruk jaso zituzten gradua egin izanaren ziurtagiria eta ondoren, mokadutxoak egin zuten Letren Fakultateko atarian.



GIZARTE LANGINTZAKO GRADUKO IRAKASLE MIREN ORTUBAY LANKIDEAREN AGURRA

Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultateak "laster arte" esan dio Miren Ortubay Fuentes irakasleari. Miren abokatua, kriminologoa eta Zuzenbide Penalean doktorea da, aditua genero indarkerian eta presoen eskubideen arloan.

5

Miren maitea: Gizarte Langintzak, Eskolak eta Fakultateak, aliatutzat izan zaitu. Hainbat proiektu, jardunaldi, batzorde, batzar eta topaketa informalen buru eta bihotza izan zara. Leiala eta eskuzabala izan zara gurekin. Ikasleek aintzat hartu zaituzte. Ezin zaio gehiago eskatu bizitza akademiko bati, publikoa dena, duintasuna eta pertsonen arteko berdintasuna defendatzeari. Eskertza publiko hau helarazi nahi dizugu, beti erlazionatu garen moduan, hurbil-hurbiletik eta elkarrekiko errespetu sakonetik egina. Zure lankideak.



LAN HARREMAN ETA GIZARTE LANGINTZA FAKULTATEKO EKITALDIAK, JARDUNALDIAK ETA MINTEGIAK

Martxoaren 19an **Gizarte Langintzako mundu eguna ospatu zen**. Martxoaren 21ean, "Giza harremanen garrantzia sustatuz" lemapean, Gizarte Langintzako Graduako 3. mailako ikasleek Gizarte Langintzako nazioarteko eguna ospatzeko hainbat ekintza egin zituzten, Gizarte Langintzatik mundu bidezkoagoa eta hobea aldarrikatzen duten ahots guztiei euren ahotsak batuz. Ikasleek, Fakultateko Andre Mari Zuriaren plazaraino pankartekin eta panfletoekin oinez joan ondoren, zenbait eszena irudikatu zituzten *mannequin challenge* teknikaren bitartez.

Apirilaren 5ean, "**Kontrol patriarkalari planto**" jardunaldia. UPV/EHUko Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultateko Arabako ataleko Berdintasun Batzordeak, Giza Eskubideak eta Botere Publikoak Katedrak eta María de Maeztu Forum Feministak antolatu zuten. Boliviako Mujeres Creando elkarteak, Ianire Estébanez psikologoak, Nerea Barjola politologoak eta Nerea Barjola Detritus Teatruseko kideak parte hartu zuten.

Apirilaren 11n eta 12an Leioako Fakultateko egoitzan egin zen **Lan eta gizarte aholkularitzako profesionalen IV. bilera**. Saioaren gai nagusia "Langileen eta atal sindikalen ordezkarietza negoziazio kolektiboan eta greban" izan zen. Beste hizlari batzuen artean, honako hauek parte hartu zuten: Patricia Nieto, Madrileko Karlos III. Unibertsitateko Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbideko irakaslea; Amparo Merino, Gaztela-Mantxako Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbideko irakaslea; Ricardo Bodas, Entzutegi Nazionaleko Lan Arloko Salako presidentea eta magistratua; Elena Pérez, Eusko Jaurlaritzako Lan arloko zuzendaria; Tomás Arrieta, Euskadiko Lan Harremanetako Kontseiluaren burua; Melanie Dufour-Poirier, Montrealeko Unibertsitateko Soziologia irakaslea; baita LAB, ELA, ESK, UGT eta CGT sindikatuetakoa ordezkaria ere.

Uztailaren 14an, "**Gizarte Zerbitzuak: bizitzaren iraunkortasunerako berrikuntza eta kudeaketa**" jardunaldia egin zen. Fernando Fantovaren lankidetzarekin antolatu zen, Gizarte Zerbitzuen Kudeaketa eta Berrikuntza graduondokoaren lehenengo edizioa amaitu zela eta. Gizarte zerbitzuen kudeaketan eta berrikuntzan interesa duten pertsonak bildu zituen, gure inguruko gizarte

zerbitzuen kudeaketa eta berrikuntza aztertze eta askotariko eragileen artean partekatutako etorkizuneko proposamenak eraikitze. Saioan María Luisa Blanco Roca gonbidatua izan genuen, parte hartze komunitarioko prozesuetan aditua den gizarte langilea, eta, halaber, APTES, Gaztaroa-Sartu eta OKencasa erakundeetako ordezkariak izan genituen.

Uztailaren 5ean, **Unibertsitate Espezializazioa: Etika Soziosanitarioa berezko tituluaren** amaiera ekitaldia egin zen eta horren bitartez amaiera eman zitzaion graduondoko lehenengo edizioari. Ekitaldi horretan, Diego Gracia izan genuen, Madrilgo Complutense Unibertsitateko Medikuntza Fakultateko Historia eta Bioetikako irakasle emeritua, eta "Bioetika herritarrentzat" izeneko hitzaldia eskaini zuen.


Lehenengo mahaian, honako hauek hartu zuten parte: Beatriz Artolazabal, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua, Lourdes Zurbanobeaskoetxea, Bizkaiko Foru Aldundiko Etika Batzordeko burua; Pepe Quintas, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailekoa; Jon Zarate, UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko errektoreordea; eta Ángel Elías, gure fakultateko dekanoa.

EMAKUME IZEN BATEN BILA

2018/2019 ikasturtean, Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultateko Berdintasun Batzordeak prozesu bat garatu du gure fakultateko espazio komunak emakumeen izenekin berrizendatzeko. Emakume horiek gure ezagutza arloetan, hots, gizarte langintzan eta lan harremanetan ekarpen garrantzitsu bat egin beharko zuket.

Emakumeek literaturan, zientzian, artean eta abarretan izan duten ikusezintasuna jakina da. Itxura denez, emakumeak inaktibo egon gara gizateriaren historian, soil-soilik zaintzan eta ugalketan arituz. Berdintasun Batzordeak uste du *nahitaez egin behar* dugula gure ekarpen txoa BAIETZ esatean, izaki aktiboak izan garela, nahiz eta itzalean aritu, eta gure ekarpena garrantzitsua izan dela eta oraindik ere badela.

Horregatik, prozesu parte hartzaile hori jarri zen martxan (irakasleak, administrazioko langileak eta ikasleak), eta horren bitartez, bizpahiru espazio berrizendatzeko guztien artetik bizpahiru emakume izen aukeratzeaz gain, emakumeen ikusezintasunaren errealitate horri buruzko gogoeta kontzientziazkoa sortzea ere lortu genuen. Egoitzaren (Leioa) kasuan, gradu aretoa berrizendatu da; Atalean (Vitoria-Gasteiz), irakasleen gela eta IKD gela. Dekanotzari Batzordearen asmoaren berri eman ondoren ekin zitzaion ibilbideari, kolektiboekin harremanetan jarritz, webgunean argitaratuz... Ontzi bana jarri zen gure fakultateak dituen bi eraikinetan, pertsonen proposamenak egin zitzaten, hautagaiak aurkez zitzaten eta labur-labur izen hori aukeratzearen arrazoia zen den azal zezaten.



Egoitzan, boto gehien zituzten hiru aukeratu ziren: Clara Zetkin, Dolores Ibarruri eta Vicenta Garnica. Horiek bigarren bozketa bat egiteko proposatu ziren. Pertsona guztiei esteka bat bidali zitzaion horietako bakoitzaren aukera "inkesta erraz" sistemaren bitartez jas ahal izateko (taldeen ordezkariak jasotzen duten Whatsapp taldeen bitartez helarazi zitzaion ikasleei eta mezu elektroniko baten bitartez langileei). Gehiengo handiz, Dolores Ibarruri aukeratu zen. (Clara Zetkin, 24 boto; Dolores Ibarruri, 97 boto; eta Vicenta Garnica, 13 boto).

Atalari dagokionez, 4 aukeratu ziren lehenengo itzulian: Rosa Luxemburgo (25), Concepción Arenal (6), Mary Richmond (4) eta Jane Addams (3). Kasu horretan, bigarren bozketa zehazki berrizendatu beharreko lokal bakoitzerako egin zen. Bi kasuetan, gehiengoa Jane Addamsek eskuratu zuen, eta, beraz, izen hori aukeratu zen irakasleen gelarako, eta bigarren aukera, Rosa Luxemburgo, IKD gelarako.

Prozesua amaitzeko, emaitzak Ikastegiko Batzarrek 2019ko maiatzaren 20an eginiko saioan aurkeztu ziren, eta proposamena onartu egin zuten. Berdintasun Batzordeak jakinarazi du Emakunderi (Emakumearen Euskal Erakundea) eman zitzaiola ekintza horren berri, jardunbide egokien gidan sar zezan, eta sartzeko zain dago.

LAN HARREMANAK ALDIZKARIKO ALDAKETAK

LAN HARREMANAK aldizkariak berrikuntzako barne-prozesu bati ekin dio hobeto funtzionatzeko eta inpaktu soziala areagotzeko.

LAN HARREMANAK aldizkari akademikoa, Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultateak argitaratua, berrikuntza prozesu batean dago, bi helburu lortzeko: batetik, argitaratzen diren artikuluen kalitatea eta inpaktu akademikoa eta soziala handitzea, eta, bestetik, emaitza horiek denboran iraun dezaten lortzeko barne prozesua hobetzea. Helburu horiek asetzeko, aldaketak egin dira, bai antolakuntzakoak, bai funtzionalak.

Arlo horietako lehenengoari dagokionez, ia-ia osorik berritu da Erredakzio Kontseilua, eta Argitaratze

Lan
Harremanak

REVISTA DE RELACIONES LABORALES
ABERASTASUNAREN BANAKETA ZUZEN BATEAN ALDE
POR UN REPARTO JUSTO DE LA RIQUEZA

40

PENSIONES Y PROTECCIÓN SOCIAL
ERRETIRO PENTSIOAK ETA GIZARTE BARESA

2019

Kontseilu izendatuko da aurrerantzean. Luis Belaustegi izendatu da zuzendari-koordinatzaile berritzat. Gainera, are gehiago indartuko da Argitaratze Kontseilua, Espainiako nahi beste herrialde batzuetako kideak sartuz. Aldaketa funtzionalen artean, berriz, lan egiteko modua aldatuko da: UPV/EHUko OJS (Open Journal System) aplikatiboa zabalago erabiliko da, aldi berean, lanak egoki banatu eta koordinatu ahal izateko, eta, hartara, eskuizkribuak era azkarrago eta eraginkorrago batean tratatu ahal izan daitezten argitaratu arte.

Argitaratutako artikuluen kalitatea handitzearen estrategia betetzeko, proposamen gehiago jaso behar dira, horien arteko onenak aukeratu ahal izateko. Aldi beran, proposamen gehiago hartzeak berarekin dakar *call for papers* bidez artikulua proposamenak aurkezteko aukera zabaltzea, lan harremanak osatzen dituzten arlo desberdinetan lan egiten duten egileei zuzenduta. Ildo horretan, datu base zabala eratu nahi da, posta elektronikoz zabaltzeko arestian aipatutako *call for papers* horiek gure aldizkarian dagoeneko argitaratu duten egileei, edo baita antzeko gaietako beste bitarteko batzuetan, artikulua gehiago jasotzea bultzatzeko.

Bestalde, argitaratzeko testuen aukeraketa hobetzeak berarekin dakar *peer review* edo "kideen berrikusketa" ezartzea, "itsu bikoitza" sistemaren bitartez, hau da, testuak anonimoki ebaluatuko dira, ebaluatzaileek egilea zein den ez dakitela, eta alderantziz. Sistema horrek kudeaketa lan zaila eta bizia dakar, eta dagoeneko aplikatu da lehenengoz 41. alean, 2019ko ekainekoan, alegia.

TO SHARE ABERASTASUNAREN BANAKETA BIDEZKO BATEN ALDE BEHATOKIA ABIAN DA FAKULTATEAN

Behatoki honen helburua da elkartzeko, eztabaidatzeko eta ikertzeko espazioa sortzea, esperientziak sakontzeko eta partekatzeko, gizartean aberastasuna bidezko eran banatzeko helburuari laguntzeko.

Behatokia 2018ko abenduaren 20an sortu zen, UPV/EHUko Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultateak aho batez onartu ondoren. Hain zuzen ere, fakultate horretan du egoitza eta UPV/EHUko hainbat instituturen partaidetza dauka, hala nola Hegoa Institutuarena (garapen iraunkorrerako lankidetzaren eta hezkuntza) garapen iraunkorrerako hezkuntzarekiko konpromisoan, Gezki Institutua (ekonomia soziala) ekonomia sozial eta solidario baten aldeko lanean, eta Parte Hartuz (partaidetza) talde finkatua, herritarren partaidetzaren alde, gure gizarteko balio demokratikoak indartzeko. Era berean, Euskadiko erakunde laguntzaile publiko eta pribatuen sare ireki bat du oinarri, eta sare horrek Behatokiaren lanetan parte hartzen du eta horiek babesten ditu.

Behatokiaren izenaren aurrekariak UPV/EHUko Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatearen lema ("aberasunaren banaketa bidezko baten alde") da, baita *ToShare Addressing technological transformations: exploring and sharing knowledge to co-create a Strategy for a diverse, inclusive, sustainable and smart Europe* Europako proiektua ere; proiektu hori Horizon 2020 deialdira aurkeztu zen 2018ko martxoaren 13an.

Behatoki honek bat egiten du UPV/EHUren egiteko honekin: "kalitatezko ikerketa gauzatzea, lankidetzaren bidez ezagutza sortuta eta gero hura lurralde inguruneari eta nazioarteko komunitateari transferituta" eta unibertsitatearen ikuspegian ere islatuta dago; izan ere, UPV/EHUK "nazioarteko ikerketa profila indartu nahi du erronka berriei aurre egiteko –gizarte, kultura, ekonomia eta ingurumen erronkak–, gizartearen eraldatze prozesuan lider izan nahi baitu, betiere jakintzaren bitartez" eta "erroak bere ingurunean dituen unibertsitatea da, eta haren helburua da gizarte konpromisoaren arloan erreferentziazko eredu bilakatzea eta Euskal Herriaren kultur garapenean betetzen duen eginkizuna indartzea".

Era berean, ekarpen bat egiten die UPV/EHUren Plan Estrategikoaren (2018-2021) "III. ildo.- gizartearekiko harremana" atalaren lehen eta bigarren helburuei: "Unibertsitatea garapen jasangarria, inklusioa eta gizarte konpromisoa sustatzen duen erakunde bihurtzea" eta "lidergoa indartzea, jakintza sortzeko eta transferitzeko eragile gisa eta euskal gizartearekin lankidetzan aritzeko eragile gisa, gizartearen lehiakortasuna eta garapena hobetzeko". Bestalde, Behatokia 2030 Agendarekin konprometituta dago, haren erronkei helduko dieten proiektu berritzaileak martxan jartzeko espazio baten sorrerarekin, eta, horrez gain, baterako lana sustatuko

du unibertsitatearen eta beste gizarte eragile batzuen artean, ikaskuntza komunitate zabalen bitartez, Nazio Batuetako Garapen Jasangarriaren Helburuen inguruan (GJH).

Behatoki bat izateko arrazoia haren funtzionamendu arina da. Gainera, Euskadin eta UPV/EHU bertan antzeko arlotan lanean diharduten beste behatoki batzuk egoteak lankidetzaz errazten du. Behatoki horien artean, aipagarriak dira OVES/GEEB (gizarte ekonomia), Ikuspegi (migrazioak), Informe laboral Euskadi (enplegua), OMAL (multinazionalak Latinoamerikan), eta antzeko beste batzuk daude beste eskualde edo herrialde batzuetan, hala nola Kataluniako DESC behatokia, Andaluziako Desberdintasunaren Behatokia, Aragoiko Desberdintasunaren Behatokia, Nafarroako Gizarte Errealitatearen Behatokia, Argentinako Padre Pedro Arrupe Aberastasunaren Behatokia, eta Observatorio das Desigualdades.

11

Behatokiaren helburu operatiboa da aberastasunaren bidezko banaketaren arloan jakintza sortzeko aukera emango duten ikerketak sustatzea, gero jakintza hori, erakunde publikoen eta pribatuen sare baten laguntzaz, gizarteari helarazteko, dauden aukeren gainean sentsibilizatu eta prestakuntza jaso dezan gizarte ongizatea indartzeari begira.

Gai honek lotura estua du beste gai batzuekin, hala nola NBERen Giza Eskubideak eta GJHak, 4.0 industria eta teknologia berriak, ekonomia sozial eta solidarioa, herritarren parte hartzea eta demokrazia indartzea, lana eta enplegua, genero berdintasuna, migrazioak, eta hezkuntza inklusiboa, iraunkorra eta etengabea. Horrela, ekarpen bat egin nahi dugu politika publikoetan gehiago parte hartuko duten herritar kritikoak sor daitezen, horrek ekarriko baitu demokrazia indartzea eta erakundeek nahiz gobernuak aberastasuna modu zuzenago batean banatzeari ekitea, gizarte babes sistema egoki bat lortzeko. Horrela, aurrerapen esanguratsua lortuko da ere Giza Eskubideen nazioarteko konpromisoen betetze mailan eta Garapen Jasangarriko Helburuen lorpenean.

Behatokiaren lan ildoak aberastasunaren bidezko banaketaren arloko ikerketa, prestakuntza eta dibulgazioa dira. Ikerketa lanei dagokienez, gradu amaierako eta master amaierako lanak bultzatu nahi dira, baita doktore tesiak ere honako arlo hauekin lotuta:

- Nazio Batuen Giza Eskubideak eta Garapen Jasangarrien Helburuak betetzean, aberastasunaren banaketari lotuta dauden eskakizunak.
- Aberastasun kontzeptua sakonago aztertzea, BPGri lotuta.
- Industria 4.0k eta teknologia berriek sortutako aberastasuna identifikatzea.
- Aberastasunaren banaketa ezagutzea.
- Zerga sistema progresiboak bilatzea, aberastasunaren banaketa zuzen baterako.
- Gizarte babes sistema indartzea eta Oinarrizko Errenta (unibertsala eta baldintzarik gabea) baten sarrerarik eratorritako ondorioak aztertzea.

Behatokiaren bitartez prestatzeari dagokionez, tailerretan, ikastaroetan eta beste prestakuntza espazio batzuetan parte hartze sustatuko da. Dibulgazioari dagokionez, webgune bat sortu da. Haren bitartez jakinaraziko dira jarduerak eta ikerketak argitaratuko dira; horrez gainera, *newsletter* bat bidaliko da aldizka eta sare sozialetan presentzia izango dugu.

Behatokiaren webgunearen URLa hau da: <https://www.ehu.eus/es/web/lan-harreman-gizarte-langintza-fakultatea/h2020-toshare>. Hor, aldizkako *newsletter*ra ikus daiteke; horren azken hiru ale argitaratu dira (azken newsletteraren esteka: <https://mailchi.mp/08b2b333ebd1/newsletter-2-2019-esp?e=89f57b1bad>).

Webgunean, gainera, sare sozialetako orriak ere ikus daitezke: Facebook **12** eta twitter
(<https://www.facebook.com/Observatorio-ToShare-422134121869145/>)
(<https://www.facebook.com/Observatorio-ToShare-422134121869145/>).



LAN HARREMAN ETA GIZA BALIABIDEETAKO GRADUAK ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARIEN PLAZAK ESKURATZEKO AUKERA EMANGO DU

Bilboko Udalak titulu baliokidetzat onartu du Lan Harreman Eta Giza Baliabideetako Gradua administrazio orokorreko teknikarien 28 plaza hornitzeko hautaketa prozesuaren deialdiaren oinarrietan.

Bizkaiko Graduatu Sozialen Elkargo Ofizialak apelazio errekurtsua aurkeztu zuen EAEAN-en Bilboko Administrazioarekiko Auzien 4. Epaitegiak eginiko sententziaren aurka. Sententzia horrek ukatu egiten zuen Lan Harreman Eta Giza Baliabideetako gradudunen titulua 2016ko eta 2017ko LEPei zegozkien administrazio orokorreko teknikarien 28 plaza hautatzeko prozesuan sartu behar izatea.

2019/06/19ko BAO on argitaratutako ebazpenean jasotzen den moduan, Bilboko Udalak sententzia eman duen EAEko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salak eginiko sententzia onartuko eta beteko du, aurreko epailearen irizpidea eta Bilboko Udalarena bera baliogabetuz. Aurrerantzean, argi eta garbi geratu da Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua titulua dutenek udal bateko, eta, hedapenez, beste edozein erakunde publikotako administrazio orokorreko teknikarien plazetarako edozein hautaketa prozesutan parte har dezaketela. Sententzia hori oso garrantzitsua da; izan ere, Euskadiko organo judizial gorenak eman du, eta, beraz, estatu osoan aplikatu daitekeen aurrekaria da.

Berraztertutako sententzia gauzatzeko datan hautaketa prozesua amaituta zegoenez, deialdi berri bat egin zen, Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua titulua zutenek prozesu horretan parte hartzeko aukera izan zezaten 2018ko martxoaren 17a baino lehen. Horregatik, deialdi hori 2018ko urtarrilaren 19ako Ebazpenaren bidez deitutako aurreko hautaketa prozesuarekin lotu da.

Hautaketa prozesuaren deialdi berriak baliogabetutako deialdiaren eduki bera izan zuen, eta soilik Lan Harreman eta Giza Baliabideetako Gradua titulua zuten hautagaiek parte hartu ahal izan zuten Ebazpen judizialak ukitutako hautaketa prozesuaren eskaerak aurkezteko epea amaitzean. Epea 2018ko martxoaren 16an amaitu zen. Berraztertutako apelazio errekurtsuaren gauzatzean deitutako hautaketa prozesua amaitu ondoren, bi prozedurek bat egingo dute, eta praktiketako funtzionario izendatuko dituzte administrazio orokorreko teknikarien plazetan jarduteko bi prozesuen ondoriozko behin betiko kalifikazioan ondoen kalifikatutako 28 hautagaiak.

Zambra elkartearekin eginiko lankidetza hitzarmenaren Jarraipen Batzordearen eraketa eta akordioak

Uztailaren 10ean, Zambra elkartearekin eginiko lankidetza hitzarmenaren Jarraipen Batzordea eratu zen; hitzarmen hori 2019ko maiatzaren 30ean izenpetu zuten UPV/EHUk eta elkarte horrek.

Zambra elkarteak gizarte bazterketaren aurka komunitatearen eraikuntzan lan egiten duten pertsonak batzen ditu. Espainia osoan lan egiten du, lurralde autonomoetan koordinatuta, eta Malagan du egoitza nagusia, bi ordezkari harekin; bata Valentzian eta bestea Euskadin.

Elkarte horren helburuen artean daude, besteak beste, gizarte ekintzaren lanean eragin zuzena duten alderdi sozial, ekonomiko eta kulturaletako giza arazoak sakon eta zorrotz aztertzea eta gizarteko esku hartzearen eremuan (soziokulturala, asoziatiboak, prestakuntzakoak, aldarrikatzaileak...) mota orotako ekimen, esperientzia eta jarduerak koordinatzea ahalbidetzea. Horregatik, beste jarduera batzuen artean, arazo sozialak hobeto ezagutzen laguntzen duten azterlanak eta ikerketak egiten dituzte, arreta berezia jarrita sektore ahulenetan, eta tartean dauden pertsonen eta kolektiboen arteko gogoetarako eta eztabaidarako topaketak errazten dituzte, baita jarduera horien guztien emaitzak hedatzea ere.



Batzorde horretan, UPV/EHU Ángel Elías dekanok eta Fakultateko 1. dekanorde eta Ataleko koordinatzaile Amaia Inzak ordezkatzten dute. Zambra elkartetik, berriz, Isabel Álvarez eta Manolo Bayona Euskadiko ordezkariaren ordezkariak parte hartzen dute.

Lehenengo bilera horretan, hainbat prestakuntza jardueratako lankidetza zehaztu zen, hala nola Gizarte Langintzako Graduak praktikuma eta nazioarteko lankidetzako proiektuak. Halaber, gure fakultateko titulu desberdinetako prestakuntza jardueretako lankidetza eta jarduerak batera antolatzeke lankidetza zehaztu ziren, Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren inguruko jardunaldi batzuk, besteak beste.

NORVEGIAKO DOKTOREGAI BAT IKERKETA EGONALDIA EGITEN ARI DA FAKULTATEAN

Norvegiako Unibertsitateko Linn-Marie Pedersenek nazioartekotzeko beka bat eskuratu du Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatean egiteko doktoregai bisitari gisa, hiru hilabetez 2019an. Linn-Mariak gure fakultatea aukeratu du gure ezagutza eta ikerketa arloek eta bere unibertsitatekoek antz handia dutelako.

15

Esku artean duen proiektua Norvegian 18-30 urte arteko gazteek izan ditzaketen zailtasun, fisiko, mental eta hezigarriari eta lan merkatuan sartzeko zailtasunei aurre egiteko gizarte ongizateko agentzien artean dagoen lankidetzari buruzkoa da.

- Zerk bultzatu zaitu gure fakultatea aukeratzera?

Norden nire fakultatearen antzeko profila zuen fakultate bat bilatzen ari nintzen, baina aldi berean, ikuspegi desberdina zuena. UPV/EHUko Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatean soziologiaren, zuzenbidearen, gizarte langintzaren eta batzuen arteko diziplina arteko ikuspegia aurkitu nuen, eta oso interesgarria iruditu zitzaidan. Nire tesia ez ezik, interes arlo horretan nire prestakuntza garatzen laguntzeko leku baten bila nenbilen. Nire ikerlana Norvegiako ongizate agentziei buruzkoa da, eta horien arteko interakzioa 18-30 urte arteko gazteei laguntzeko izan ditzaketen zailtasun, fisiko, mental eta hezigarriari eta lan merkatuan sartzeko zailtasunei aurre egiteko. Horregatik, egonaldian nire tesia beste ikuspegi batzuetatik ikusten lagun ziezadakeen fakultate baten bila ari nintzen.



- Zer nabarmenduko zenuke zure egonalditik?

Hiru hilabetezko nire egonaldian, hiru esperientzia nabarmenduko nituzke. Lehena, Fakultatearekin Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundearen biltzar batean parte hartu ahal izatea. Asko ikasi nuen eskualde honetako sindikatu sistemari eta lan ikuspegiei buruz. Bigarrena, gizarte zerbitzuei eta bizitzaren iraunkortasunerako berrikuntzari eta kudeaketari buruzko graduondoko baten inguruko jardunaldi batean parte hartzea. Asko hunkitu ninduen Fakultateak gai hori nola lantzen duen ikusteaz gain, gizarteko hainbat eragilerekin eta gobernuarekin duen lankidetzaz.

ikusteak. Hirugarrena, berriz, Angel Elías Ortega dekanoarekin gizarte bidezkoago bati eta oinarritzko errentari buruz zorte handiz izan ditudan elkarrizketa aberasgarriak izan dira. Esperientzia horiek guztiek gizartearen arloko gaiei eta haien garrantziari buruzko nire ikuspegiak zabaldu dira.

- **Zer alde dago Nordeko Unibertsitateko zure ikastegiaren eta fakultate honen artean?**

Alde nagusia da hemen bi prestakuntza ildo dituzuela: gizarte langintza eta lan harremanak. Han, berriz, ez dugu lan harremanetako prestakuntzarik. Beste alde bat lan jardunaldiak izango lirateke. Hemen, bazkaltzerakoan, denek dute atseden bat ordu bietatik aurrera; han, aldiz, goizez lanaldi trinkoan lan egiten da. Eta, jakina, nire bulegotik daukadan ikuspegia zoragarria da! Zenbait egunetan, paisaia begiratzera ez, baizik eta lanera etorri naizela gogorarazi behar izan diot nire buruari.

- **Ikusten al duzu aukerarik etorkizunean lankidetzan aritzeko?**

Nire ustez, oso interesgarria litzateke Norderako eta Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultaterako etorkizunean lankidetzan aritzen jarraitzea. Agian, hitzarmen bat egin beharko lukete bi unibertsitateen artean gizarte langintzako graduen arteko trukeak areagotzeko, antzeko interesak dituzten ikertzaileak bilatu eta etorkizunean proiektuetan elkarrekin lan egiteko aukera aintzat hartu. Pertsonalki, UPV/EHUrekin harremanetan jarraitu nahi nuke. Etxean bezala sentitu naiz hiru hilabete hauetan, eta Fakultateko jendearekin izan ditudan harremanei eta erlazioei eutsi nahi nieke.

ELISA FERRAZ, LAN HARREMAN ETA GIZARTE LANGINTZA FAKULTATEKO IKASLE HORREK BIZIA LAB CAMPUSEKO PROGRAMAREN JARDUNALDI HONETAN PARTE HARTU DU: EREINDUTAKO HAZIA LORATZEN ARI DA. ETOR ZAITEZ IKUSTERA!

Ekainaren 12an izan zen unibertsitate komunitatearen (irakasle eta ikertzaileak, AZP eta GRALak edo MALak egiteko prest dauden ikasleak) eta UPV/EHUko iraunkortasunaren erronkei erantzun nahi dieten beste eragile batzuen arteko topagune izan nahi duen jardunaldia.

Hauek izan ziren jardunaldiaren helburuak: iraunkortasunerako EHUagenda 2030 aurkeztea, Campus Bizia Lab (CBL) programaren 2. deialdiko proiektuen aurrerapenak partekatzea eta CBL programa zabaltzea, beste diziplina, estamentu eta ikastegi batzuetako unibertsitate komunitateko pertsonen programan parte har dezaten sustatzeko asmoz.

Elisa Ferraz elkarrizketatuko dugu, Leioako Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultateko ikaslea eta *Fridays For Future (FFF)* mugimenduko kide gisa ekainaren 12an izandako jardunaldian parte hartu zuena, Campus Bizia Lab proiektuaren inguruko GRALak eta MALak aurkezten zirela eta.

Elisak boluntario gisa eman zuen izena Greenpeacen 16 urterekin, eta, harrezkero, GKE horrekin lankidetzan aritu da hainbat jardueratan. Erakunde horren bitartez, Europar jatorriko ikasleen mugimendu ekologista ezagutu zuen, eta beste kide batzuekin batera, 2019ko martxoaren 15eko mundu mailako greban parte hartu zuen. Ondoren, greba prestatzen aritu ziren beste pertsona batzuekin bat egin zuten eta "FFF Bilbao" adarra sortu zuten. Orduz geroztik, elkarte hori handitzen joan da eta espero dute pixkanaka-pixkanaka pertsona gehiago batuko zaizkiola.

-Zer da Got Talent CBL? Animatuko al zenituzke gure fakultateko kideak batzera? Zergatik?

Campus Bizia Lab programaren asmoa da UPV/EHUko unibertsitate campusak laborategi gisa baliatzea iraunkortasun proiektuak gauzatzeko. Hilaren 12an eginiko jardunaldian programa horren inguruan eginiko GRALak eta MALak aurkeztu ziren, eta, ondoren, galderak egin zitzaizkien proiektuez arduratzen ziren irakasleei Garapen Iraunkorrerako Helburuen artetik 4 arloren barruan. Azken hori izan zen, funtsean, CBLren Got Talent, helburu bakoitzeko galderen txanda bat eta eztabaida.

Jarduera hori fakultateko nire lankideei gomendatzeari dagokionez, bai. Dibulгатze lana ezinbestekoa da krisi klimatikoaren aurka borrokatzeko, eta Got Talent horrek, hain zuzen ere, horixe bilatzen zuen: egiten ari diren

iraunkortasun proiektuak ezagutaraztea eta horiek hain beharrezkoak izatearen arrazoiak berri ematea. Gainera, eskarmentu handiko irakasleak zirenez parte hartzaileak eta horietako bakoitzak iraunkortasun bere arlotik aplikatzen zenez, hainbat kontu ikasi ahal izan genituen hiru modalitateetatik: zientziak, giza zientziak eta arteak. Denak izan ziren garrantzitsuak eta ez ziren mugatuk soilik datu zientifikoak ematera. Jarduera hori normalean egiten dugunetik urrun badago ere, uste dugu esperientzia positiboa izan zela guretzat eta bertan izan ziren guztientzat.

Zer alderdi nabarmenduko zenituzke ekainaren 12an UPV/EHUko Bizkaia Aretoan Campus Bizia Labeko Gol Talent CBL jardunaldiaren dinamizatzaile gisa beste 6 pertsonarekin batera?

18

Egia esan, pasa den astera arte ez genuen jakin zehatz-mehatz zein izango zen gure egitekoa jardunaldi honetan... Hortaz, iraunkortasun saileko neskak gure zereginaren berri eman bezain laster, erlojuaren aurka prestatzen hasi ginen. Helburua zen jendea ez aspertzeko moduko galderen txanda bat egitea, eta horretarako, galdera serio eta absurdoen nahasketa bat prestatu genuen, eta kaleko jendeari grabatutako elkarrizketa baten zatiak tartekatu genituen (bezperan grabatu eta muntatu genuen). Arratsalde batean, eskuan mugikorraren mikrofonoa eta argazki kamera hartuta, Bilbon ibili ginen grabaketan ateratzeko prest zegoen jende bila. Amaieran, uste baino jende gehiago animatu zen eta nahiko ondo pasatu genuen.

Zein balorazio egiten duzu Garapen Iraunkorrerako Helburuetako Agenda 2030 ekimena abian jartzeak gure fakultatean duen mailari buruz? Iradokizun zehatzen bat?

Nire ustez, Garapen Iraunkorrerako Helburuak, ekologiari dagokionez bederen, ez dira nahikoa abian jarri gure fakultatean. Horren erakusgarri dira, adibidez, saltzeko makinak, produktu guzti-guztiekin baitituzte bilgarriak (baita sagarrak ere!), edo, barrutian birziklatzeko paperontziak falta izatea. Nolanahi ere, aitortu behar da norabide zuzenean aurrera egiten hasiak garela, esate baterako kafe makinetan geure edalontzia erabili ahal izatearen antzeko neurriak ezarrita. Ezin gara, ordea, hor geratu. Aldaketa sakona egin behar dugu, bai fakultatearen funtzionamenduan (energia garbiak erabiltzea, behin bakarrik erabiltzeko plastikoak erabiltzeari uztea...) bai berau osatzen dugun pertsonen ohituretan. Jakin badakit oso erraza dela esatea, baina ahaleginduta bakarrik ere aurrera egingo genuke.

- **Instagram FFF Bilbao:** [@fridaysforfuture.bilbao](https://www.instagram.com/fridaysforfuture.bilbao)



FAKULTATEKO KALITATEA BERMATZEKO BARNE SISTEMAREN EGIAZTAPENA

Ikasturte honetan Fakultateko Kalitatea Bermatzeko Barne Sistema (KBBS) egiaztatu da, eta ikastegiko kalitate arduradunek zuzendu dute: Garikoitz Otazuak eta Maria del Mar Lledók.

Sistema horri esker, Fakultateak prozesu guztiak modu eraginkorrean kudeatzeko, horiek berrikusteko eta etengabe hobetzeko tresna eraginkorra izango du. Ikastegiko KBBS 2017ko abenduaren 20ko Ikastegiko Batzarren onartu zen, eta UNIBASQek egiaztatu zuen 2019ko otsailaren 27an.

Fakultateko kalitateko dekanorde Garikoitz Otazuari elkarrizketa egingo diogu, prozesua nolakoa izan den eta zein inplikazio izan dituen azal diezagun.

- Noiz hasi zen KBBS egiteko prozesua eta zein beharri erantzuten dio?

2016/2017 ikasturtean, Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultate berria eratu zenean, eskainitako ikasketa plan guztiak modu bateratuan kudeatzeko lanean hasi zen. Ordura arte, Lan Harremanetako Unibertsitate Eskolako eta Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskolako ikastegiekin ez zuten izaera, esperientzia eta historia erdibanatzen. 2016ko irailaren 29ko Gobernu Batzordean araudi berria onartu zen (2016-10-14ko BAO), eta, geroago, dekanotza talde berria eratu zen, aurretik aipatutako bi ikastegien berrantolaketaren ondorioz. Lehenengo unetik elkar ezagutzeko aldi bat zabaldu zen, eroso sentitzeko eta ikastegi berriarekin identifikatzeko aukerak aprobetxatzeko asmoz, betiere egingo genuena epe luzerakoa eta eraginkorra izateko helburuarekin.

Horrela, KBBS beharrezko tresna bihurtu da, Goi Mailako Hezkuntzaren Europar Esparrua arautzen duen araudira egokituta eta eskaintzen dugun irakaskuntzari lotutako helburuak betetzen direla ziurtatuz, etengabeko hobetzea helburu izanez. Garrantzitsua da kontuan izatea KBBS ez dela sistema itxia; aldiz, interes taldeen balorazioak izateko diseinaturik dago, prozedura bakoitzari lotuta, haien beharrak eta itxaropenak kontuan izanda.

-Zeintzuk izan dira prozesuan egon diren zailtasun handienak?

Jakin behar da Fakultatea osatzen duten bi ikastegietako bakoitzak dagoeneko beren kudeaketa sistema diseinatu eta garatzeko ahalegina egin zutela eta horietako bakoitzak errealitate eta kudeatzeko modu ezberdinei erantzuten ziela. Agian, errazagoa izan zitekeen sistema bat goitik behera diseinatzea, hutsetik hasiko bagina bezala. Hala ere, aukeratu genuen diseinua behetik gora eraikitzean oinarritu zen, bakoitzaren ekiteko modua errespetatuz eta interes talde ezberdinen beharrak kontuan hartuz. Aldaketak elkarlanaren emaitza izatea nahi genuen, erkidean geneukanetik abiatuta honako helburu hauek lortzeko: ekimen berriak abiaraztea, berezko titulu berriak sortzea, gradu bikoitz bat gehitzea, prestakuntza duala sartzea, etab.

- Zein laguntza izan duzue proiektua garatzeko?

Jaso dugun ikastegitik kanpoko laguntza nagusia Kalitate Zerbitzuak eta UPV/EHUko erakunde ebaluazioak eman digu. Horrekin lotuta, bi pertsonaren lana nabarmendu nahi dut; alde batetik, ebaluazio teknikariarena, Angela Bernaolarena, edukiak berrikusi eta iradokizunak egin baitizkigu, eta, bestetik, zerbitzuaren zuzendariarena, Alfonso Davalillorena, prestakuntza eta laguntza eman baitigu.

Gainera, espero zitekeen bezala, ikastegiak barne laguntza handia jaso du; izan ere, KBBSren diseinuan eta tituluen garapenean parte hartu dute ikastegiaren kudeaketan ardura mailaren bat duten pertsona guztiek. Zereginen koordinazioa eta horiek KBBSn zehazteko bidea horretako sortutako Batzordeak egin du. Honako hauek osatzen dute Batzordea: Miren Valdebere Mancisidorrek (Fakultateko teknikaria), M^a Mar Lledó Saínz de Rozasek (dekanotza taldea), Garikoitz Otazua Garmendiak (dekanotza taldea) eta Fakultateko Kalitate Batzordeko partaideek.

- **Zertarako balio du KBBSk eta zergatik da funtsezkoa hori aplikatzea?**

KBBS funtsezkoa da Goi Mailako Hezkuntzaren Europar Esparruan kontuak emateko. KBBSren diseinuaren egiaztagiriarekin aitortzen zaigu unibertsitate irakaskuntzaren antolamenduari buruzko araudian zehaztutako baldintzak betetzen ditugula, kalitateari dagokionez. Gainera, KBBS funtsezko tresna da kudeaketa eta komunikazio gardenaren egiteko eta aukera eman digu kalitate sistema oso eta integrala gehitzeko gure titulu guztietan. Horrez gain, ikastegiaren kudeaketak interes taldeen beharrak eta itxaropenak ezagutzeko eta ikastegiko tituluen politika, helburuak, planak, programak, ardurak eta lorpenak jakinarazteko aukera ematen digu.

- **Zure ustez, zein da sistemako prozedurarik garrantzitsuenak?**

Edonork bere buruari galdetuko balio unibertsitate batek zer egiten duen, irakaskuntza garatzeari lotutako prozedurak aipatuko lituzke: ikasleak jasotzetik lan munduan txertatu arte, harreratik, orientaziotik, irakaskuntza antolakuntzatik, ikaskuntza giden garapenetik, praktiketatik, mugikortasunetik edo Gradu Amaierako Lanetik pasata. Horrek ez du esan nahi irakaskuntza garatzeko laguntza ematen duten prozedurek garrantzi gutxiago dutenik (administrazio eta zerbitzuak langileen eta ordezkari bitarteko irakasleen harrera eta kudeaketa, prestakuntza, erosketen kudeaketa, ondarearen mantenua, akten kudeaketa, kredituen aitorpena, beken kudeaketa, etab.).

Ez nieke garrantzia kendu nahi gizartearekin komunikatzearekin eta konprometitzearekin lotutako prozedurei; izan ere, zeharkako izaera dute aipatutako prozedura guztietan. Gainera, kalitatezko irakaskuntzaren garapenak tituluen diseinuarekin eta planifikazioarekin zerikusia duten prozesuen sistematizazioa behar du, baita jardura guztiak berrikusteko eta hobetzeko jardun sistematikoa ere. Hortaz, prozedura guztiak dira garrantzitsuak.

- **Eta zailena?**

Prozedura bakoitzak bere zailtasun maila dauka eta zenbait fronti erantzuten dio. Prozedura batzuen zailtasuna, hala nola irakaskuntza garatzearekin lotuta daudenena, interes taldeen beharrei eta itxaropenei erantzuteko duen izaerak zehazten du. Beste prozedura batzuen zailtasunak zeharkako izaerarekin zerikusia du; adibidez, barne eta kanpo komunikazioarekin, Fakultateak gizartearekin eta gure esparru hurbilarekin duen konpromisoarekin edo eguneratuta mantentzearekin lotuta daudenak, aldizka egiten diren berrikuspenen bidez. Hobetzeko ekintzak dira horien guztien emaitzak.

Beste prozedura batzuek araudi aldaketen eragin handiagoa dute, eta horiek errealitate berrietara eta gizarte eskakizunetara etengabe moldatzen dira. Hori bera gertatzen zaio gure tituluen nazioartekotzearen kudeaketari edo gero eta garrantzitsuagoa den ikasleen orientazio profesionalari, haien laneratzea hobetzeko mekanismo gisa. Garrantzitsua da azpimarratzea gure prozedura batzuek aurrekontu laguntza behar dutela eta ez dugula beti horiek mantentzeko programarik. Baina, azken finean, guztiek bete behar dituzte kalitate agentziek ezarritako kalitate kanonak, eta horietako bakoitzak gure ikastegiaren eta tituluen kalitatea egiaztatzen laguntzen dute. Horien kudeatzaileek badakite horrek zer ekartzen duen, badakite beren lana oso garrantzitsua dela Fakultatea osatzen dugun unibertsitate komunitate osoaren artean egiten dugun lanari jarraipena emateko.

- ***Zein da egiaztatze txostenaren azken balorazioa?***

Alde batetik, txostenak balioa ematen dio diseinuaren fase horrek izan duen zailtasunari eta egiaztatzen du programen eta tituluen kalitatea lortzeko egin den apustua kalitatezkoa dela. Bestalde, gure hasierako sendotasunei eta ahulguneei buruzko aztarnak ematen ditu, kontuan izango direnak etorkizunean egiaztagiria lortzean arazorik ez izateko. Bereziki, Fakultatea osatzen dugun pertsona guztiek jakin behar dugu kontuak emateko mekanismoak indartu behar ditugula eta ekimen askok interes taldeen partaidetza izan behar dutela. Horretako, erabilitako baliabideen eraginkortasuna indartu behar da haien interesak, beharrak eta itxaropenak ezagutzeko.

- ***Orain falta dena sistemaren prozedurak eta mekanismoak abiaraztea eta emaitzak ikustea da. Uste duzu lan zaila izango dela?***

Oso lan gogorra da; izan ere, Kalitatea Bermatzeko Sistema txertatzeko fasean gaude dagoeneko eta gure helburua KBBSren txertaketa egiaztagiria 2020ko abendurako lortzea da. Momentuz, bide onean goaz eta dena ondo ateratzeko Fakultateko dekanotza taldeak, irakasle eta ikertzaileek, AZPko langileek eta ikasleek elkarrekin lan egin behar dugu, bakoitzak gure ardura maila eta konpromisoa hartuta lan egiten dugun gizarterekiko.



Lan Harreman eta Gizarte Langintza Facultatea. Araba Campusa.



Lan harreman eta Gizarte Langintza Facultatea. Leioa Campusa.